

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## NUPak lehiakortasunean eta bikaintasunean aurrera egiteko egin duen ahalegina nabarmendu du Lehendakariak

*Iberus Campusaren 2018/2019 ikasturtea irekitzeko ekitaldiko buru izan da, campusa osatzen duten Nafarroa, Errioxa, Lleida eta Zaragozako unibertsitateetako errektoreekin batera*

Ostirala, 2018.eko irailak 28

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek berriaz nabarmendu du Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) maila guzti-guztietan (zabalkunde akademikoa, antolaketa, azpiegiturak, ikerketa edo kudeaketa) gizartearen eskakizun berrietara egokitzeko eta lehiakortasunean nahiz bikaintasunean aurrera egiteko egiten ari den ahalegin handia.



Lehendakaria, Iberus Campuseko lau errektoreekin.

Lehendakariak Iberus Campusaren 2018/2019 ikasturtea inauguratu du. Ebro Haraneko Nazioarteko Bikaintasunezko Campus honek Errioxa, Lleida eta Zaragozako unibertsitateak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) ditu kide. Ikasturtea irekitzeko ekitaldi solemnea gaur eguerdian egin da El Sario eraikineko Fernando Remacha Gelan 350 pertsonaren aurrean.

Junto con Uxue Barkosekin batera, ekitaldiko buru izan dira Alfonso Carlosena, NUPeko errektore eta Iberus Campuseko lehendakaria eta beste hiru unibertsitateetako errektoreak: Julio Rubio García (Errioxa), Iberus Campuseko lehendakariordea; Roberto Fernández Díaz (Lleida) eta José Antonio Mayoral Murillo (Zaragoza). Hitzaldian izan dira, halaber, María José Beaumont, Ana Olló, María Solana eta Ana Herrera kontseilariak, Nafarroako agintari nagusiak, beste unibertsitate batzuen ordezkariak eta Iberus osatzen duten gobernu autonomikoetako kideak, besteak beste.

### Lehendakariaren agerraldia

Jendaurreko agerraldian, Uxue Barkosek gogoratu du hezkuntza dela gizarte baten garapenaren eragile nagusietako bat, eta horren harira, NUPak Nafarroari egiten dion ekarpenaren garrantzia nabarmendu du, ez bakarrik ikasleak gaitasun akademikoetan prestatuz, baita "ulertzeko eta

integratzeko gaitasuna eta espiritu kritiko eta etikoa landuz” ere, eta unibertsitate komunitate osoan txertatuz “ondo egindako lanaren garrantzia, horixe baita egindako inbertsio publikoa gizarteari itzuliko zaiola bermatzeko modurik onena”.

Gainera, NUP maila guzti-guztietan egiten ari den ahalegina erreparatu du, eta bereziki aipatu du zabalkunde akademikoarena, “bere historia laburrean egin duen handiena”, Uxue Barkosen hitzetan. Zientzietan, Bioteknologiako Zientzietan eta Biomedikuntzako Ingeniaritzetan ikasturte honetan sorturiko graduak aipatu ditu, baita luze gabe sortuko dituen gradu berriak ere, Psikologiari eta Historia eta Ondareari dagozkienak. Azkenik, nazioarteko programen eskaintza zein doktorego eta masterren eskaintza handitzeko ahalegina azpimarratu du, gradu bikoitzak, espezializazioak, hizkuntzak, praktikak eta ikerketa-institutu berriak ahantzi gabe. Hori guztia, “departamentuen berregituraketa sakona” eta azpiegiturretan aurrera eginez.

“Zalantza-izpirik gabe –nabarmendu du- ahalegin erraldoi honek Unibertsitate lehiakorragoa, optimizatuagoa eta bikainagoa ekarriko digu”.

### **Gobernuaren sostengua**

Lehendakariak argi utzi nahi izan du Nafarroako Gobernuak erakunde honi emandako sostengua. Lankidetzaren honen adibide gisa aipatu du 2018-2020ko urte anitzeko finantzaketa-hitzarmena, “erakundeari epe ertain eta luzera begira bikaintasunezko helburuak zabaltzea ahalbidetuko diona”, haren hitzetan.

Testuinguru honetan, bi erakundeek titulazio berriak ezartzeko (Medikuntzako gradua, kasu) hartu duten baterako konpromisoa aipatu du. Proiektu honetaz esan du “lehentasunezkoa dela Gobernu honentzat, justizia sozialeko erreibindikazioa den heinean”, eta horren bideragarritasuna segurtatu du. “Konplexua da, baina guztion ahaleginaz egin daitekeena”, gaineratu du.

Era berean, Lehendakariak gogoratu du Gobernuak unibertsitateari I+Grako dirulaguntzen bitartez, doktore aurreko laguntza-deialdiekin edota doktore aurreko nazioarteko mugikortasunerako laguntza berrien bidez ematen dion finantzaketa.

Azkenik, Iberus Campuseko jarduera goraiatu du, izan ere, nabarmendu duenez, hori gabe bideraezinak izango lirateke hainbat programa eta ekimen. “Unibertsitateek, Gobernuak bezalaxe, ezin dute bakarka lan egin: ziur nago, unibertsitateen arteko aliantza honek aukera berriak eta interesgarriak ematen jarraituko duela Nafarroako unibertsitate publikoaren komunitate osoaren mesedetan”, esan du.

### **Iberus Campusaren garrantzia**

Bestalde, UPNAko errektore Alfonso Carlosenak adierazi du Iberus Campusa Europa osoan aitortutako jardunbide egokiaren eredu bilakatu dela eta Ebroaren erdiko harana egituratzeko eta bertako lankidetzaren sustatzeko osagaia izatea dela horren balio nagusia.

“Unibertsitatea da egitura sozioekonomiko desberdinak eta kolore politiko desberdinetako gobernuak dituzten eskualdeen arteko lankidetzaren gauzatzeko behar diren gaitasunak, baliabideak, neutraltasuna eta independentzia dituen erakundea bakarra”, ziurtatu du Alfonso Carlosenak, Iberus Campusaren lankidetzaren hori indartu eta beste eskualde eta herrialde batzuetara hedatzeko konpromisoa duela adieraziz.

Irekitze-hitzaldia, 2017ko Musika Sari Nazionala irabazi zuen Teresa Catalan Sanchez (Iruña, 1951) Artearen Filosofiako doktoreak eman du. Catalanek musika ikasketak unibertsitateetara itzul daitezela eskatu du. “Musika interes gorenekoa da ezagutzaren hainbat arlotan, estu-estu lotuta baitago filosofiarekin –hainbat adarretan–, matematikarekin, fisikarekin, soziologiarekin, psikologiarekin, teknologiarekin edo historiarekin... Musika ez da horietako bat, baina guztiekin bat eginda dago”,



Barkos Lehendakaria, agerraldiaren une batean.

nabarmendu du.

## Galería de fotos



Ekitaldian bildutako publikoaren irudia.